



LPA-ABIEB

LANERAKO PROZEDURA ARAUTUA

ABIEB

**Agente Biologikoekin eta Genetikoko Eraldatutako
Organismoekin egindako Ikerketetarako Etika Batzordea**

Leioa, 12 de junio de 2017ko ekainaren 12a

INDIZEA

LANERAKO PROZEDURA ARAUTUA	1
Indizea	2
6.1.- Batzordekideen eginkizunak	¡Error! Marcador no definido.
9.1.- ABIEBren bilerak	¡Error! Marcador no definido.
9.2.1.- Ebaluaziorako eskaria, memoria, agiriak eta epeak	¡Error! Marcador no definido.
9.3.- Txostenak	¡Error! Marcador no definido.
9.3.2.- ABIEBren txostenaren aurkako alegazioak aurkezteko bidea	¡Error! Marcador no definido.
9.3.4.- Aldaketa nabarmenak ebaluatutako jardueran	¡Error! Marcador no definido.
1 DEFINIZIOA	3
2 HELBURU OROKORRAK	3
3 EGINKIZUNAK	3
3.1 IKERKETA ETA IRAKASKUNTZA JARDUERAK EBALUATZEA	3
3.2 EBALUAZIO TXOSTENAK EMATEA	3
3.3 IKERKETA ETA IRAKASKUNTZA JARDUEREN JARRAIPENA EGITEA	4
3.4 GOMENDIOAK EMATEA, PRAKTIKA ZIENTIFIKO ZUZENEI BURUZKO GIDA EGITEA ETA PRESTAKUNTZA JARDUERAK ANTOLATZEA	4
3.5 KANPOKO HARREMANAK	4
3.6 BESTE BATZUK	4
4 GIEBri LAGUNTZA EMATEKO BALIABIDE TEKNIKOAK ETA GIZA BALIABIDEAK	4
5 ABIEBko KIDEAK	5
5.1 OSAERA	5
5.2 BATZORDEKO KIDEAK AUKERATZEA ETA BERRITZEA	5
5.3 KIDE IZATEARI UZTEA	6
5.4 BATZORDEBURUA AUKERATZEA	6
6 BATZORDEBURUAREN, BATZORDEKO KIDEEN ETA IDAZKARIAREN EGINKIZUNAK	6
6.1 BATZORDEKIDEEN EGINKIZUNAK	6
6.2 BATZORDEBURUAREN EGINKIZUNAK	7
6.3 IDAZKARIAREN EGINKIZUNAK	7
7 INPARTZIALTASUNA, INDEPENDENTZIA, INTERES GATAZKA ETA KIDEAK ERREFUSATZEA ..	8
8 KONFIDENTZIALTASUN BETEBEHARRA	9
9 LANERAKO METODOLOGIA	9
9.1 ABIEBren BILERAK	9
9.1.1 Ohiko bilerak	10
9.1.2 Ezohiko bilerak	10
9.1.3 Egutegia	10
9.1.4 Bilerarako deialdia eta aztergaien zerrenda	10
9.1.5 Gaiaren inguruko eztabaida eta erabakiak	11
9.1.6 Bilerako akta	11
9.2 EBALUAZIOA	11
9.2.1 Ebaluaziorako eskaria, memoria, agiriak eta epeak	11
9.2.2 Ebaluazio prozesua	11
9.3 TXOSTENAK	12
9.3.1 ABIEBren txosten motak	12
9.3.2 ABIEBren txostenaren aurkako alegazioak aurkezteko bidea	13
9.3.3 Ikerketako beste etika batzorde baten aldeko txostena berrestea	13
9.3.4 Aldaketa nabarmenak ebaluatutako jardueran	13
9.4 JARRAIPENA	14
9.4.1 Jarraipenerako Lan Taldea	14
9.4.2 Jardueraren urteko laburpena	14
9.4.3 Proiektuaren azken txostena	14
9.5 LAN TALDEAK	14
9.6 URTEKO MEMORIA	15
10 LPAn ALDAKETAK EGITEA	15

1 DEFINIZIOA

Agente Biologikoekin eta Genetikoko Eraldatutako Organismoekin egindako Ikerketetarako Etika Batzordea (ABIEB) kide anitzeko organoa da, Ikerketa eta Irakaskuntzako Etika Batzordearen (IIEB) egituran txertatua, eta indarreko legediari jarraituz garatua (barne hartuta: Laneko arriskuen prebentzioari buruzko 31/1995 ED; langileak lanean agente biologikoekiko esposizioari lotutako arriskuetatik babesteari buruzko 664/1997 ED; 9/2003 Legea, Genetikoki eraldatutako organismoak merkaturatzeko, nahita askatzeko eta haien erabilera konfinatua egiteko araubide juridikoa ezartzen duena; 9/2003 garatzen duen 178/2004 ED) eta UPV/EHUn akreditatua dago UPV/EHUko ikerketarako eta irakaskuntzarako etika batzordeei buruzko araudiaren bidez (2014/02/17ko EHAA).

2 HELBURU OROKORRAK

ABIEBren helburu nagusiak dira:

- UPV/EHUko ikerketa eta irakaskuntza jardueren kalitatea hobetzea.
- Ikerketa edo irakaskuntza jardueran agente biologikoekin edo GEOekin egiten direnean Praktika Zientifiko Zuzenak (PZZ) erabiltzen direnean, honako jarrera hauek sustatzea: Praktika Zientifiko Zuzenak (PZZ), biosegurtasuneko balioak, arrisku pertsonalei eta lanekoei buruzko informazioa, arrisku horien kontrako neurriak eta arrisku horien prebentzioa, eta ingurumenaren babesa.
- Indarreko araudia bete egiten dela zaintzea: 31/1995 Legea, 664/1997 ED, 9/2003 Legea eta 178/2004 ED, UPV/EHUko Estatutauk eta UPV/EHUK ikerketa eta irakaskuntza jardueren inguruan dituen arauak.
- Ikerketa horietan eta irakaskuntza jardunean metodologiako, etikako eta lege arloko zehaztasunak bete egiten direla bermatzea.
- Agente biologikoekin edo GEOekin egiten diren ikerketa eta irakaskuntza jardueretan praktika zientifiko zuzenen, balioen eta araudiaren arloko prestakuntza eta eztabaida sustatzea.

3 EGINKIZUNAK

3.1 IKERKETA ETA IRAKASKUNTZA JARDUERAK EBALUATZEA

ABIEB kide anitzeko organo bat da, eta UPV/EHUn eginiko ikerketa eta irakaskuntza jardueren alderdi etikoak, metodologikoak eta juridikoak ebaluatzen ditu zuzentasuna, objektibotasuna, errespetua eta eraginkortasuna oinarri hartuta. Ebaluazioa egiteko, batzordeak eskaria hartu behar du eta agente biologikoekin eta GEOekin egiten den ikerketa edo irakaskuntza jarduera izan behar da.

3.2 EBALUAZIO TXOSTENAK EMATEA

ABIEBren ardura da ebaluazioa egin ondoren horren txostena ematea.

ABIEBren Aldeko Txostena (GEIB-AT), hala behar denean gainerako batzordeenak bezala, aurretikoa eta nahitaezkoa da, ABIEBn aurkeztu eta ebaluazioa gainditu duten ikerketa eta irakaskuntza jarduerak martxan jarri ahal izateko.

Txosten horrek ebaluatutako ikerketa edo irakaskuntza jarduera irizpide metodologiko, etiko eta juridikoei jarraituz egingo dela egiaztatzen du, hala eskatzen duten agintarien, erakundeen, argitaletxeen eta abarren aurrean.

ABIEBren eginkizun hori gorabehera, unibertsitateko Lege Zerbitzuak txostena egin beharko du, araudi orokorren edo unibertsitatekoen arabera txosten hori beharrezkoa bada, eta organo bakoitzak bere eskumenen babesean arituko da. ABIEBk ebaluazioa egitea ez da eragozpen bat ikerketa eta irakaskuntza ebaluazioa UPV/EHUtik kanpoko beste batzorde batek egin dezan, betiere batzorde hori behar bezala akreditatuta badago.

3.3 IKERKETA ETA IRAKASKUNTZA JARDUEREN JARRAIPENA EGITEA

ABIEBren ardura da ikerketa eta irakaskuntza jardueren jarraipena egitea, indarreko legedia eta aurretiko ebaluazioaren aldeko txostenean jasotakoa oinarri hartuta.

3.4 GOMENDIOAK EMATEA, PRAKTIKA ZIENTIFIKO ZUZENEI BURUZKO GIDA EGITEA ETA PRESTAKUNTZA JARDUERAK ANTOLATZEA

ABIEBk, irakasle eta ikertzaileen lana errazte aldera, parte hartzen du gomendioak emateko zereginean, PZZ gidak osatzeko lanean eta ikerketa eta irakaskuntza jardueretan zaindu beharreko etikaren arloko prestakuntzan, jardun hori agente biologikoekin edo GEOekin egiten denean.

3.5 KANPOKO HARREMANAK

ABIEBk bere helburu eta eginkizunekin bat datozen batzorde, elkarte, erakundeekin eta antzekoekin harremanak ezartzen ditu, eta horiekin elkarlanean aritu ahal izango da.

3.6 BESTE BATZUK

Indarreko legedian zehaztutakoak (Laneko arriskuen prebentzioari buruzko 31/1995 ED; langileak lanean agente biologikoekiko esposizioari lotutako arriskuetatik babesteari buruzko 664/1997 ED; 9/2003 Legea, Genetikoki eraldatutako organismoak merkaturatzeko, nahita askatzeko eta haien erabilera konfinatua egiteko araubide juridikoa ezartzen duena; 9/2003 garatzen duen 178/2004 ED) eta IIEBK eta UPV/EHUko zuzendaritza taldeak esleitutako gainerakoak.

4 GIEBRI LAGUNTZA EMATEKO BALIABIDE TEKNIKOAK ETA GIZA BALIABIDEAK

Arlo honetan eskumena daukan errektoreordeari dagokio ABIEBri bere eginkizunak betetzeko behar dituen giza baliabideak eta baliabide teknikoak ematea, errektoreordetzaren beraren baliabideak erabilita.

Egoki iritziz gero, ABIEBk aholkua eska diezaike UPV/EHUtik kanpoko adituei edo erakundeei.

5 ABIEBko KIDEAK

5.1 OSAERA

ABIEBk diziplina arteko osaera izan behar du nahitaez, gaien analisisian eta ulermenean, zereginak erabakitzean ikuspegi anitza edukitzeko; era berean, generoen arteko parekotasuna zaindu beharko du.

ABIEBk gutxien dela bost kide izango ditu:

- Prebentzio Zerbitzuko teknikari bat.
- Irakasle-ikertzaileen taldeko hiru kide, agente biologikoekin edo GEOekin egindako ikerketa eta irakaskuntza jardueretan esperientzia egiaztatua daukatenak.
- Batzordeari laguntza teknikoa emango dion pertsona bat; ABIEBko idazkaria izango da, eta ahotsa izango du, baina botorik ez.

Ahal bada, ABIEBko kideen artean egongo dira ere irakasle-ikertzaileen taldeko kide bat, batzordearen eskumeneko ikerketa arlokoarekin zerikusirik ez daukana, legelari bat eta ikerketaren metodologian prestatutako irakasle edo ikertzaile bat.

ABIEBko kide izatea borondatezkoa da, ez da ordainsaririk eskuratuko eta kideak ez dira ezelango talde, erakunde, ikastegi edo sailen ordezkari izango.

Kide bakoitzaren *curriculum vitae*a, eredu arautuan, IIEBren idazkaritzan egongo da eskuragarri, eta kargua, kategoria profesionala, jakintza arloa eta aukeratua izatearen oinarri izan den profila IIEBren webgunean argitaratuko da.

5.2 BATZORDEKO KIDEAK AUKERATZEA ETA BERRITZEA

Kide berriak ABIEBk berak proposatuko ditu kide izateko nahia adierazi duten UPV/EHUko kideen artetik aukeratuta.

Deialdia lau urtean behin egingo da UPV/EHUko iragarki oholen bidez, eta unibertsitateko edozein kidek har dezake parte. ABIEBren kideren batek kargua utzi (5.3 KIDE IZATEARI UZTEA) edo baja hartzen badu eta aurreko deialdian sortutako zerrendan profil bereko hautagairik ez badago edo batzordeko kideek ezetz esaten badute, premiazko deialdi bat egingo da, zereginak atzeratu ez daitezten.

ABIEBko kide izateko eskaria telefono bidez edo posta elektronikoz egin behar zaio idazkari teknikoari, eta idazkariak hartuko du eskari egileak aurkeztutako informazio.

Ezohiko bilera batean ABIEBren eztabaidaren ondorengo proposamenean aintzat hartuko dira honako hauek:

- ABIEBren premiak kontuan hartuta osaera eta eginkizunak
- Kide izateko aurkeztutako pertsonak bere curriculumenean adierazi dituen gaitasunak eta esperientzia profesionala, batzordean izango dituen eginkizunekin zerikusia dutenak.
- Agente biologiko edo GEOekin egiten diren ikerketa eta irakaskuntza jardueren ebaluazioa egiteko erakusten duen interesa, eta batzordeko eginkizunak betetzeko prestutasuna. Hautagaiak bere interesa eta prestutasuna azaldu beharko ditu ABIEBri

igorritako idatzi batean.

Ezohiko bilera amaitu ondoren, proposamena lehen tasun hurrenkeran helaraziko zaio Ikerketaren arloko errektoreordeari.

ABIEBko kideak errektoreak izendatuko ditu Ikerketaren arloko errektoreordearen proposamenari jarraituz, eta horren berri emango dio Gobernu Kontseiluari. Izendapena lau urterako izango da, beste lau urterako berritzeko aukerarekin. Administrazio eta zerbitzuetako langileen (AZP) taldeko kideek ez dute epe muga hori izango.

Eskatzaile guztiek jasoko dute errektorearen behin betiko erabakia.

5.3 KIDE IZATEARI UZTEA

ABIEBko kide izateari uzteko arrazoiak honako hauek izango dira:

- Kideak berak kide izateari uzteko eskaria egitea ABIEBko idazkariari aurkeztutako idatzi bidez.
- ABIEBko kide gisa zortzi urteko epea bete izana.
- Izendapenari dagozkion eginkizunak ez betetzea, urtean ohiko lau bileretara ez joateagatik.
- Arau juridikoak edo irizpide etikoak ez betetzea, barne hartuta konfidentzialtasuna ez betetzea edo interes gatazkarik egonez gero horren berri ez ematea.

Kargu uztea errektorearen erabaki bidez jakinaraziko da.

5.4 BATZORDEBURUA AUKERATZEA

Batzordeburua aldatu edo berritu egingo da, ABIEBren lau urtean behingo berritzearen ondoren, behin berritutako batzordea eratuta. Hautagaien artean, emandako botoen gehiengo absolutua, erdia gehi bat, lortzen duen pertsonak kargua beteko du. Lehen itzulian gehiengo absolutua lortu ezean, bigarren itzulian boto gehien lortzen dituen pertsonak beteko du kargua, lehen itzulian boto gehien lortu dituzten bi hautagaien artean. Kargua onartzean, ABIEBko idazkariak horren berri emango dio errektoreordeari eta izendapena errektoreak egingo du. Izendapena lau urterako izango da, eta berritu ahal izango da gehienez ere zortzi urte bete arte.

6 BATZORDEBURUAREN, BATZORDEKO KIDEEN ETA IDAZKARIAREN EGINKIZUNAK

ABIEBk batzorde buru bat izango du, eta gutxien dela hiru batzordekide. ABIEBko idazkari lanak UPV/EHUko IIEBko ikerketako etika teknikariak egingo ditu.

6.1 BATZORDEKIDEEN EGINKIZUNAK

Batzordeko kide guztiek, batzordeburuak barne, honako eginkizun hauek izango dituzte:

- Ikerketako eta irakaskuntza jarduerako proiektuak ebaluatzea, batzordeak berak adierazitako txandetan eta eran.

- Ikerketa eta irakaskuntza jardunerako etikaren arloko gomendioak ematea, PZZko gidak egitea eta prestakuntza ematea.
- ABIEBren bileretara joatea, parte hartze aktiboa izatea eta botoa ematea.
- Batzordeburuari ezohiko bileretarako deialdiak egitea proposatzea.
- ABIEBren helburu eta eginkizunekin bat datozen batzorde, elkarte, erakunde eta antzekoekin harremanak ezartzea eta horiekin elkarlanean aritzea.
- Indarreko araudiari jarraituz eta Ikerketa Biomedikoari buruzko legedia garatzeko arauetan jasotako beste eginkizun batzuk, bai eta IIEBk eta UPV/EHUko zuzendaritza taldeak emandako beste batzuk.

6.2 BATZORDEBURUAREN EGINKIZUNAK

- ABIEBren ordezkari izatea.
- IIEBko kide izatea ABIEBren ordezkari gisa, eta IIEBren bileretara joatea batzorde horretan dituen eginkizunak betez.
- Ohiko bileretako egutegia betetzea, ABIEBko gehiengoak behin onartuta.
- Bilerak zuhurtziaz moderatzea, erabakiak eta akordioak sustatuta.
- Bozketarik egin behar izanez gero, bozketa antolatzea, eta berdinketa dagoenean, kalitate botoa erabiltzea.
- Ebaluazioa egiteko lagungarri izango diren adituei eta ikertzaileei deitzea, ABIEBko idazkariaren bitartez.
- Bilerako akta sinatzea, ABIEBko batzarrak onartu ondoren.
- UPV/EHUko IIEBk eta ABIEBk hartutako erabakiak betetzen direla zaintzea.
- ABIEBren urteko memoria egiteko beharrekoa den informazioa biltzea eta antolatzea.

6.3 IDAZKARIAREN EGINKIZUNAK

- ABIEBra ebaluatzeko bidaltzen diren proiektu eta irakaskuntza jarduerak jasotzea, erregistratzea eta dagokion espedientea irekitzea.
- Ohiko, ezohiko eta jarraipeneko bileretarako deialdiak egitea, aztergaien zerrenda zehaztuta, eta bilerarako gela erreserbatzea.
- Bileren egutegia koordinatzea eta argitaratzea.
- Dokumentazioa ABIEBko kide guztiei bidaltzea, eta proiektua ebaluatzeko lanean parte hartuko duten parekoak aukeratzea, ohiko eta ezohiko bileretarako.
- Jarraipenerako Lan Taldeko ebaluatzaileei dokumentazioa bidaltzea.
- Beharrezkoak diren izapideak egitea, irakasle-ikertzaile arduradunak bilerara joateko eskaria egiten duenean edo ABIEBko kideek eskaera bat egiten dutenean bilerara adituren bat joateko edo haren iritzia eskatzeko.
- Ohiko eta ezohiko bileretan landutakoa biltzea eta akta egitea, gogoeten dokumentuak eta txostenak bertan jasota "Aktari atxikitako dokumentazio gisa",

batzordeburuak gainbegiratuta.

- Jarraipenerako Lan Taldean landutakoa biltzea, eta akta eta jarraipen txostenak egitea.
- Ebaluazioa eskatu duen pertsonari txostena bidaltzea bere proiektuari edo irakaskuntza jardunari buruzko dokumentu guztiekin batera, **IIEBinprimakiak** aplikazioaren bidez.
- Jarraipenerako Lan Taldean parte hartu duen ikertzaileari dagokion txostena bidaltzea.
- ABIEBren Aldeko Txostenaren dokumentua betetzea (UPV/EHU-ABIEB-AT).
- Idazkaritzan interesen gatazka dagoela adierazten denean, kasu horietarako dagoen prozedura ezartzea.
- Kargu uzteak eta izendapenak jasotzea eta jakinaraztea.
- ABIEBren bileretako akten kopia ematea, akta eskatzeko eskubidea duen norbaitek eskatuz gero.
- Komunitate zientifikoko kideek ABIEBren eskumeneko gaien inguruan egindako galderak eta zalantzak argitzea eta horien inguruko laguntza ematea.
- Ikerketaren etikari buruzko prestakuntza baliagarria den edozein arlotan irakaskuntza ematea, unibertsitateko kideek eskatzen duten kasuetan eta ikerketaren arloko errektoreordeak edo, haren ordez, Ikerketa eta Irakaskuntza Jardueren Etika zuzendariak baimentzen dutenean.

7 INPARTZIALTASUNA, INDEPENDENTZIA, INTERES GATAZKA ETA KIDEAK ERREFUSATZEA

ABIEBko kideek inpartzialtasun eta independentzia osoz betetzen dute beren jarduna.

ABIEBko kideren batek interes gatazkagatik inpartzialtasunez eta independentziaz aritzeko arazoa izan dezakeela ikusiz gero, horren berri eman beharko dio idazkariari, eta kasuan kasuko ikerketa edo irakaskuntza jarduera ebaluatzeko prozesutik kanpo geratuko da.

Interes gatazka honako egoera hauetan eman daiteke:

- Gaietan interes pertsonala izatea edo gai horretan eragina izan dezakeen beste bat ebatzi behar denean.
- Interesatuetakoren batekin laugarren mailara arteko ahaidetasuna edo odol kidetasuna izatea edo bigarren mailara arteko ezkontza kidetasuna.
- Ageriko adiskidetasuna edo etsaitasuna izatea.
- Proiektuan parte hartzen dutenekin zerbitzu harremana izatea edo azken urteetan zerbitzuak eman izatea kide horiei.
- Ebaluatu beharreko ikerketa edo irakaskuntza jarduerarekin zuzeneko lotura izatea.

ABIEBren bileretako aktan jasota geratuko da interes gatazka daukan kide horrek ez duela parte hartu prozesu osoan: ez du dokumentaziorik hartuko, ebaluazioa egitean ez da bertan egongo eta ez du parterik hartuko eztabaidan eta txostenaren igorpenean.

Irakasle-ikertzaileek ABIEBko kide baten errefusatzeari bultzatzea ez dute onartzen. Horretarako gutun bat igorriko diote idazkariari, errefusatzeari arrazoiak adierazita. ABIEBko idazkariak interesatuari jakinaraziko dio errefusatuaren dela.

Hurrengo egunean, errefusatutako pertsonak alegatutako arrazoia ematen den ala ez adieraziko dio ABIEBko idazkariari. Baiezkoa bada, ABIEBko idazkariak proiektu horretatik kanpo utziko du ebaluatzaile gisa, eta kasuan kasuko bilerako aktan jasoko du gertaera.

Errefusatutako pertsonak errefusatze arrazoia ez dela benetakoa adierazten badu, Ikerketaren arloko errektoreordeak edo, haren ordeztu, Ikerketa eta Irakaskuntza Jardueren Etika zuzendariak, hiru eguneko epean, horren inguruko erabakia hartuko du, aldeztu aurretik egoki izan daitezkeen txostenak eskatuta eta beharrezko diren egiaztapenak eginda.

Ikerketa eta irakaskuntza jardueren Etika zuzendariak hartutako erabakiaren kontra ezin izango da errekurtsorik jarri; hala ere, errekurtsioa aurkeztu ahal izango da proiektuaren ebaluaziorako hartutako erabakirako egin den administrazio egintzaren kontra, eta, orduan, errefusatzeko eskaria egin dela alegatu ahal izango da.

8 KONFIDENTZIALTASUN BETEBEHARRA

ABIEBn botoa eta ahotsa daukaten kide guztiek, batzordean behin edo behin parte hartzen dutenek, ahotsa izan arren botorik ez daukatenek eta batzordeak egiten duen lanaren berri daukaten guztiek eskuratu duten informazio guztia isilpean gordeko dutela bermatu beharko dute, isilpean gordeta betiere ebaluatzaileen identitatea eta eztabaiden nondik norakoak.

ABIEBko kideren batek konfidentzialtasun betebeharra bete ezean, kargutik kenduko da.

Konfidentzialtasun betebeharra hautsi duena ABIEBko kidea ez bada, pertsona hori etorkizunean ezin izango da izan ABIEBko kide eta ezin izango du bileretan parte hartu aditu legez, eta dagozkion legezko ondorioak jasoko ditu.

9 LANERAKO METODOLOGIA

9.1 ABIEBREN BILERAK

ABIEBk gutxien dela bilera bat egingo du hilean, abuztuan edo behar bezala arrazoitutako egoeretan izan ezik.

Batzordea balioz eratu ahal izateko, bertan egongo dira nahitaez ABIEBko batzordeburua, idazkaria –edo horien eginkizunak betetzen ari diren ordeztuak– eta kideen erdiak eta bat gehiago.

ABIEBko kideek ezin dute beren eginkizuna eskuordetu eta ezin dute behin-behineko ordeztu izan; salbuespena dira horretan batzordeburua eta idazkaria, akta egiteko zereginean.

ABIEBren bileretan parte hartu ahal izango dute, ahotsarekin baina botorik gabe, batzordeak egoki iriztitako adituek edo ebaluatzen ari diren ikertzaileek, betiere gonbidatuak izan badira edo bilerara joateko eskaria egin badute.

ABIEBko kideren batek interes gatazkarik badauka, ezin du parte hartu batzordearen eginkizunetan eta bileratik irten beharko du ebaluazioaren gaia lantzerantz doazenean. Hori guztia aktan jaso beharko da.

9.1.1 Ohiko bilerak

Ohiko bilerak dira egutegian jasotako hileroko bilerak eta ezohikoak izan gabe epearen barruan deitutako gainerakoak.

Ohiko bilerarako deialdia gutxien dela bilera baino 7 egun lehenago egin behar da posta elektronikoz, eta deialdiarekin batera honako hauek bidali behar dira: aztergaien zerrenda, aurreko bilerako akta eta aktaren eranskinak, eta ebaluatu beharreko ikerketa eta irakaskuntza jardueren zerrenda.

9.1.2 Ezohiko bilerak

Premiaz deitutako bilerak dira, deialdietarako eskatutako epeak bete gabe. ABIEBko edozein kideren eskariari jarraituz egin daiteke ezohiko bilera baterako deialdia, gaia premiazkoa denean edo egin beharrekoen ondorioz bilera egitea premiazkoa denean. Bilera egingo da deialdia egin eta 48 orduko epearen barruan. Batzordeburuari horren berri eman ondoren, ABIEBko idazkariak egingo du bilerarako deialdia, eta horretarako biderik azkarrena eta egokiena erabiliko du.

Bilera balioz eratzeko, kideen erdiak gehi bat bertaratuko dira nahitaez, eta bileraren hasieran ezohiko bileraren premia berretsi beharko dute. Premia berretsi ezean, bilera bertan behera geratuko da.

Ezohiko bileraren deialdia eragin duen gaia baino ezin izango da aztertu.

Gai hori hurrengo ohiko bilerako aztergaien zerrendan jasoko da, ABIEBko kide guztiek horren berri izan dezaten.

9.1.3 Egutegia

ABIEBko idazkariak ikasturterako bileren egutegia egingo du. Batzordeko kideekin koordinatu eta haien aurrean aurkeztu ondoren, egutegia gehiengo soilaren bidez onartu beharko da. Bileren egutegia UPV/EHUko webgunean argitaratuko da.

9.1.4 Bilerarako deialdia eta aztergaien zerrenda

Ohiko bilerarako deialdia posta elektronikoz egingo da, eta aztergaien zerrenda izango du erantsita, bai eta bilerarako beharrezko diren agiri guztiak ere. Aztergaien zerrendan bilerako lekua, eguna eta ordua, eta bilerara deitutakoen zerrenda zehaztuko dira.

ABIEBko bileren aztergaien zerrenda idazkariak egingo du, eta honako gai hauek jasoko ditu:

- Aurreko bilerako akta irakurri eta onestea.
- Batzordeburuaren txostena.
- Jasotako eskariei jarraituz, ikerketa eta irakaskuntza jarduerak aztertzea, ebaluatzea eta berriz ebaluatzea.
- Proiektuen eta irakaskuntza jardueren jarraipena.
- Galde-eskeak.

Ez da erabakirik hartuko eta ez da bozketarik egingo aztertutako gaia aztergaien zerrendan ez badago, non eta gaia premiazkoa dela erabakitzen den gehiengo soilaren aldeko botoekin.

9.1.5 **Gaiaren inguruko eztabaida eta erabakiak**

Gaiak eztabaidatu ondoren hartuko dira erabakiak, adostasunera helduta. Bozketarik egin behar izanez gero, eginkizun bakoitzerako zehaztutako gehiengoak hartu beharko dira kontuan. Berdinketarik egonez gero, batzordeburuak kalitate botoa izango du.

9.1.6 **Bilerako akta**

Bilera guztien akta egingo da, ohikoak nahiz ezohikoak izan. Akta bileran onartu ondoren, ABIEBko buruak eta idazkariak sinatuko dute, eta idazkariaren ardura izango da aktak, paperean eta formatu elektronikoa, artxibatzea eta zaintzea.

ABIEBren bilerako aktan, gutxien dela honako hauek jasoko dira:

- Bertaratuen eta bertaratu ez direnen zerrenda
- Bilera lekua, eguna, hasierako eta amaierako ordua, eta iraupena.
- Aztertutako gaiak.
- Interes gatazkagatik bertaratu ez den kidea zein den adieraziko da, baita gatazka eragin duen gaiak UPV/EHUren IIEBn daukan erregistro zenbakia ere.
- Aktak erantsita dituen dokumentuak. Bertan, ebaluazioren oharra eta txostenak jasoko dira, UPV/EHUko IIEBko erregistroko zenbakia eta ikerketa edo irakaskuntza jardueraren izenburua zehaztuta.

Legezko interes egiaztatua dutenek eskaria egin diezaiokete ABIEBko idazkariari bileran hartutako erabakien ziurtagiria jasotzeko.

9.2 **EBALUAZIOA**

9.2.1 **Ebaluaziorako eskaria, memoria, agiriak eta epeak**

UPV/EHUko kide guztiek, legez nahitaezkoa izan ala ez, ebaluaziorako eskaria egin diezaiokete ABIEBri, baldin eta ikerketa edo irakaskuntza jarduerak agente biologikoekin edo GEOekin egiten badituzte eta egoki irizten badiote.

Agente biologikoekin edo GEOekin egindako ikerketa edo irakaskuntza jarduera bat ebaluatzeke eskaera edozein datatan egin daiteke, **IIEBinprimakiak** aplikazioaren bidez.

Ebaluaziorako aurkezten diren ikerketa edo irakaskuntza jarduerak www.ehu/CEID web aplikazioaren bidez aurkeztu behar dira. Aplikazio horren bidez, memoria bete eta dagokion dokumentazioa eranstean da, eta ezinbesteko baldintza izango da eskaeraren "**Bidali idazkaritzara**" markatzea aplikazioan. **IIEBinprimakiak** aplikaziotik ikertzaileak posta bat jasoko du, proiektua edo irakaskuntza jarduera aztertzeke ABIEBren bilera zer egunetan egingo den adierazita.

ABIEBk, gehienez ere, 40 egun izango ditu ebaluazioa egiteko eta horren emaitza bidaltzeko, eskaeraren "**Bidali idazkaritzara**" datatik zenbatzen hasita.

9.2.2 **Ebaluazio prozesua**

Ikerketa edo irakaskuntza jarduera, hasiera batean, ABIEBko bi kidek ebaluatuko dute, beren izenak isilpean gordeta, eta, gero, ABIEBko kide guztiek ebaluazio hori osatuko dute horretarako deitutako bileran.

ABIEBko idazkariak proiektu bakoitzerako ebaluatzaile parekoak izendatuko ditu hileko lehenengo astean, ebaluatzaileen arteko pluraltasuna lehenetsita eta jakintza arlo bereko kide bat baino gehiago egon ez dadin zainduta.

ABIEBko idazkariak kide guztiei igorriko die dokumentazio osoa (interes gatazka dutenei izan ezik), eta ikerketa edo irakaskuntza jarduera bakoitza ebaluatzeko izendatutako parekoak nor diren jakinaraziko die. Ebaluazioa memoriaren egitura honi jarraituta egingo da:

1. Proiektuak gizarterako daukan balioa eta arrazoiak.
2. Ikertzaileen prestakuntza.
3. Balio metodologikoa eta zientifikoa.
4. Etikaren arloko gaiak, pertsonen eta ingurumenaren biosegurtasunari lotutakoak.
5. Bete beharreko agiriak: UPV/EHUko Prebentzio Zerbitzuari Ikertzaile taldea nork osatzen duten eta zer agente biologiko erabiliko duten jakinaraztea, eta, lan GEOekin egingo bada, jakinarazpena Ingurumen Ministerioaren Biosegurtasun Sailari egitea.

Bi ebaluazio txostenak ABIEBren bileran aurkeztuko dira, eta horien gaineko erabakia hartuko da.

Erabakiak adostasunez hartzea bultzatuko da, gaia zuhurtziaz eta arduraz aztertu ondoren.

Adostasunik egon ezean, bozketa egingo da, eta gehiengo soila beharko da erabakia hartzeko. Batzordeburuaren boto kalitatea berdinketa dagoenean baino ez da erabiliko.

ABIEBko kideek, ebaluazioa egiteko, beste aditu batzuen aholkua eska dezakete, idazkariaren bidez.

Ebaluazioa eskatu duten pertsonak ABIEBn azalpenak emateko eskubidea du. Horretarako, idazkariaren bidez hitzordua eskatu beharko dio ABIEBri, eta idazkariak bilerako aztergaien zerrendan jasoko du, ahalik eta eperik laburrean.

9.3 TXOSTENAK

9.3.1 ABIEBren txosten motak

Ebaluazioaren ondoren, eskatzaileari helaraziko zaizkion lau txosten mota igor ditzake ABIEBk:

- ALDEKO TXOSTENA: ebaluatutako parametroen arabera, jarduera zuzen planteatu dela adierazten du.
- ALDEKO TXOSTENA, BAINA ALDAKETA TXIKI BATZUK EGIN BEHAR DIRA: forma akatsak daudenean igortzen da, edo dokumentazio gehigarria falta denean edo erantsi behar denean. Txostenari agiri bat eransten zaio, txostena ematearen arrazoiak azaltzeko, eta agiri horretan ABIEBko kideek egoki iritzitako oharrak eta zehaztapenak jasoko dira. Txosten hori "aldeko txosten" bihurtuko da berehala, eskatzaileak akats horiek zuzentzen dituzenean, ABIEBk eskatutakoa bidalita. Egin beharreko aldaketen ezaugarriak kontuan hartuta, aldeko txostena ABIEBko idazkariak edo ebaluatzaile parekideak emango dute. Akatsak zuzentzeko 6 hilabeteko epea izango du, eta, horrela egin ezean, izapideak ez betetzeagatik ESPEDIENTEA ITXI DELA jakinaraziko du idazkariak.
- ZUZENDU BEHARREKOEN TXOSTENA: ikerketa edo irakaskuntza jardueraren memorian datuak falta direnean edo proiektuak akatsak dituzenean ematen da,

datuok edo akatsok ezinbesteko informazioa dutenean proiektua behar bezala ebaluatzeko. Txostenari agiri bat eransten zaio, txostena ematearen arrazoiak azaltzeko, eta agiri horretan ABIEBko kideek egoki irizitako oharra eta zehaztapenak jasoko dira. Eskatzaileak 45 eguneko epea izango du batzordeak eskatutakoari jarraituz proiektua zuzentzeko, eta, horrela eginez gero, batzordeak BERRIZ EBALUATUKO du. Ebaluazioa berriro egingo da **IIEBinprimakiak** aplikazioaren bidez aldatutako memoria edo dokumentazioa jaso, eta ABIEBk egingo duen lehen bileran.

Behin 45 eguneko epea igarota, eskatzailearen jakinarazpenik izan ezean, ABIEBko idazkariak gutun bat bidaliko dio ESPEDIENTEA ITXI EGINGO DELA jakinarazteko.

- **KONTRAKO TXOSTENA:** ikerketa edo irakaskuntzako jardueraren memorian huts nabarmenak hautematen direnean ematen da, huts horiek ezin direnean zuzendu aldaketa txiki batzuk eginda edo ezin direnean sailkatu "zuzendu beharrekoen" atalean.

ABIEBren txosten guztiak idatziz egin, eta arrazoituta egongo dira. Txostenak bilera bakoitzaren aktari erantsiko zaizkio, eta ABIEBko idazkaritzak **IIEBinprimakiak** aplikazioaren bidez igorriko dizkie ebaluazioaren eskatzaileei 10 eguneko epean, ABIEBren bilerako egunetik kontatzen hasita.

ABIEBri ebaluazioa eskatu dion ikerketa jarduera edo irakaskuntza praktika ezin izango da hasi UPV/EHU-ABIEB-AT ALDEKO TXOSTENA eskuratu arte.

9.3.2 ABIEBren txostenaren aurhako alegazioak aurkezteko bidea.

Txosten bat jasotzen duen pertsonak eskubidea dauka entzunaldia eskatu, eta ABIEBren bileran hitz egiteko. Hitzordua posta elektronikoz eskatu behar zaio ABIEBko idazkariari. Idazkariak eskaera ahalik eta arinen sartuko du, bilera bateko aztergaien zerrendan.

9.3.3 Ikerketako beste etika batzorde baten aldeko txostena berrestea

Txosten mota hau emango da eskatzaileak ikerketako beste etika batzorde baten aldeko txostena aurkezten duenean. Berrespenaren oinarriak dira arrazoizko balioak eta beste batzorde akreditatua batzuen lanarekiko errespetua eta konfiantza izatea. Berrespena eskatzeko ikertzaile edo irakasleak honako hauek egin behar ditu:

- a) ABIEBri ebaluazio eskaria egitean, ikerketako beste etika batzorde baten aldeko txostena berresteko eskatzen dela adieraztea.
- b) Txosten hori eskariari eranstea.
- c) Batzorde horren agiri bat eranstea, honako hauek adierazita: aldeko txostena jaso duen proiektuaren izenburua, ikertzaile parte hartzaileen zerrenda eta ikerketa non egingo den.

Horrelakoren bat aurkeztu ezean, ABIEBk ohiko prozedurari jarraituz ebaluatuko du proiektua.

9.3.4 Aldaketa nabarmenak ebaluatutako jardueran

Aldeko txostena jaso zuen proiektuaren edukietan, jardueratan eta abarretan izandako aldaketak ikerketa edo irakaskuntza jardueraren aldaketa nabarmentzat hartuko dira, eta ikertzaileak horien ebaluazioa eskatu beharko du, **IIEBinprimakiak** aplikazioaren bidez.

9.4 JARRAIPENA

ABIEBk aldeko txostena lortu duten ikerketa eta irakaskuntza jardueren jarraipena egiteko betebeharra dauka. Irakasleek eta ikertzaileek aukeratu dezakete beren jarduera Jarraipenerako Lan Taldeari ahoz aurkeztea edo jardueraren urteko laburpen bat bidaltzea idazkari teknikoari.

9.4.1 Jarraipenerako Lan Taldea

Talde hau osatuko dute ebaluatzailea den edo izan den batzorde bakoitzeko pertsona batek, Ikerketa eta Irakaskuntza Jardueren etika zuzendariak eta idazkari teknikoak. Urtean bi aldiz bilduko da gutxienez, borondatez beren jardueren nondik norakoak azaltzera bilerara joan nahi duten irakasle edo ikertzaileak entzuteko. Ikertzaileak proiektuan aldaketa nabarmenak edo zailtasunak egon direla adierazten duenean, ABIEBk, behin informazioa jasota, horien garrantzia baloratu, eta erabakia hartzeko aholkatuko du.

9.4.2 Jardueraren urteko laburpena

Irakasleek eta ikertzaileek, nahiago badute, egindako jardueraren laburpen bat aurkeztu ahal izango dute urtero. Laburpen horretan, ABIABren Aldeko Txostena (ABIAB-AT) jaso eta urtebetera, jarduera egiten ari den edo hasierako proiektuarekiko aldaketa esanguratsuak egin diren ala ez adieraziko da.

9.4.3 Proiektuaren azken txostena

ABIABren aldeko txostena jaso duten ikerketa eta irakaskuntza jarduera orotan, proiektuaren amaierako txostena aurkeztu beharko da idazkaritza teknikoan, eta bertan irakasle edo ikertzaile arduradunak lana laburtu, eta egindako argitalpenak erantsiko ditu.

9.5 LANTALDEAK.

ABIEBk, gehiengoaren adostasunez, lan taldeak edo mintegiak era ditzake, ABIEBko kide baten edo batzuen zuzendaritzapean. Talde edo mintegi horien helburua batzordearen eginkizunak betetzen laguntzea izango da, PZZ gomendioak emateko eta dibulgazio nahiz irakaskuntza lanak egiteko bereziki.

Lan taldeak berak ezarriko ditu bere funtzionamendu ildoak, betiere, LPA honen ildoei jarraituta, eta ABIEBren ohiko bileran taldeak egindako lanaren berri eman beharko da, eta lanak amaitzerakoan, txosten bat aurkeztuko da ABIEBren bileran, batzordeak onar dezan.

ABIEBk lau baliabide ditu horretarako:

- a) Webgunea: www.ehu/CEID
- b) UPV/EHUko [IIEBren koaderno bilduma](#)
- c) Biltzarrak, jardunaldiak...
- d) Ikasgelako eta online prestakuntza. Batzordeetako kideek emango dute, UPV/EHUko irakasle-ikertzaileek edo AZPko langilek egindako eskariari erantzunez.

9.6 URTEKO MEMORIA

ABIEBk urteko memoria egingo du honako atal hauez osatuta:

- Ebaluazio eskariak.
- Ebaluatutako jarduerak.
- Igorritako txostenak.
- ABIEBren aldeko txostenak.
- Proiektuen jarraipena egiteko egin diren jarduerak: urtean aurkeztutako laburpen kopurua, sei hilabetetik behin egindako bileretara bertaratutakoen kopurua, eta proiektu amaierako txosten kopurua.
- Lan taldeak eta jarduerak: gomendioak, IIEB koadernoak eta prestakuntza.
- Ohiko eta ezohiko bilera kopurua.
- Igarotako urtearen egutegia.
- Bileretarako deialdiak eta aktak.
- Osaeran egindako aldaketak: izendapenak eta kargu uzteak.
- Beste batzorde, zerbitzu eta abarrekin egindako bilerak.
- Ikerketa edo irakaskuntza jardueran partaide diren erakundeak.

10 LPAN ALDAKETAK EGITEA

Lanerako Prozedura Arautua (LPA-ABIEB) aldatu ahal izango da, atalen bat batzordearen eginkizunetarako oztopo dela iritziz gero, eta, betiere, aldatu nahi dena LPA honen 1. eta 2. artikuluetan zehaztutako araudian jasota ez badago.

LPA aldatzeko proposamenak Ikerketa eta Irakaskuntza Jardueren Etika Zuzendaritzak eta Idazkaritza Teknikoak egingo dituzte, eta, IIEBko ezohiko bilera batean eztabaidatu ondoren, bi herenen gehiengoz onartuko dira.